

ORIO KIROLA

Aurrerantzean, herriko kirol-ekipamendu guztiak modu bateratuan kudeatuko dira; Karela kiroldegiko leihatila izango da herriko kirolaren sarbidea.

Aldaketaren helburua da herriko kirol-eskaintza herritar guztien eskura jartzea, eta kirol-baliabideak modu eraginkorragoan kudeatzea.



01 Zertan eragingo du?

INSTALAZIOEN HOBEKUNTZA

Herriko kirol-klubek Udalaren laguntza jasoko dute beren instalazioen mantentze, garbiketa eta aseguratuko, eta aukera izango dute udal-instalazioak erabiltzeko entrenamenduetarako.

LEIHATILA BAKARRA

Herriko kirol-elkarteen eskaintzak zabalkunde handiagoa lortuko du, eta herritarrei sarbidea erraztuko zaie Karela kiroldegiko leihatila bakarraren bidez.

ESKOLA-KIROLA

Adin txikikoen kirol-ohituretan eragiten jarraitu nahi du Udalak. Eskola Kirola programatik abiatuta, haur eta gazteei egokitutako aukerak bermatuko ditu, herri-kohesioa sustatuz eta herriko kirol-elkarteen parte-hartzea indartuz.

UR-KIROLAK

Arraunean eta uretako kiroletan trebatzeko errendimendu handiko zentroa da Arraunetxe. Eraikinaren erabilera zabaldu nahi du Udalak, lehiarako ez ezik, aisialdirako eta formakuntzarako erreferentziatzko gunere ere izan dadin.

KIROLA GUZTIONTZAT

Adinekoei, emakumeei, desgaitasunen bat duten herritarrei... zuzendutako jarduerak indartuko dira, eta kirol-instalazioak erabiltzeko pausoa ematen lagunduko zaie.

Orioko Udalak
kirol-zerbitzu berria
jarriko du martxan
aurten

02 Prozesua

1. DIAGNOSIA

Lehenbizi, herriaren benetako egoera zein den aztertu zuen Udalak: herriko kirol-azpiegituren azterketa egin zuen Txekalde ingeniari-bulegoak, eta kirol-eskaintzaren diagnostika Kirol Management SL enpresak.

2. HITZARMENAK ETA ERREGELAMENDUA

Bi txosten horietan oinarrituta, lankidetzahitzarmenak sinatu zituen Udalak herriko kirol-elkarte nagusiekin, eta herriko kirol-instalazioen erabilera arautzen duen erregelamendua sortu zuen 2024an; 2025ean sartuko da indarrean.

3. PROZEDURA

2024ko azaroaz geroztik, kirol-instalazioen zerbitzuak bateratzeko eta hobetzeko pleguak landu eta argitaratu ditu Udalak, eta gimnasioetako ekipamenduak berritzeko deialdia egin. Bi deialdi horiek apirila-maiatza artean ebatziko dira.

4. MARTXAN JARTZEA

MAIATZEAN sinatuko da kiroldegiko kontratu berria eta horren bidez:

- Kiroldegiaren ordutegia aldatuko da eta eguerdian ere zabalduko da.
- Adinekoei bideratutako eskaintza indartu egingo da.
- KOZ Kirol Orientazio Zerbitzua martxan jarriko da, herritarren bizitza aktiboa sustatzeko.

UDAN, gimnasioetako ekipamendu berriak ekarriko dira, eta zaintza- eta aholkularitza-zerbitzuak eskura izango dituzte herritarrek.

IRAILEAN, obra eta egokitzapenak bukatuta, jarriko da martxan Orio Kirola zerbitzu berria.

03 Hemendik aurrera

Informazio-gune bakarra

Karela kiroldegian herritarrek eskura izango dute:

- Abonamendu-motei buruzko informazioa.
- Kiroldegiko instalazioen ezaugarriak, eskaintza eta ordutegia.
- Kiroldegiko jarduera-eskaintza.
- Herriko kirol-elkarteen eskaintza eta haietan izena emateko prozedura.
- Orientazio zerbitzu bat, herritar guztiek kirola egin ahal izan dezaten, beren nahi eta gaitasunen arabera.
- Kirol Txartela Mugimint: beste udalerrietan erabili daitezkeen kirol-instalazioen informazioa.

Kiroldegia

- **Kiroldegiak bi gimnasio izango ditu aurrerantzean:** orain artekoa (berritua) eta Haize Berri taberna zena, entrenatzeko espazio bilakatuko dena.
- **Makineria erabat berrituko da bi gimnasioetan, eta begiraleak egongo dira hainbat orduz,** laguntza eta aholkularitza emateko eta entrenamenduak diseinatzen laguntzeko.
- **Kiroldegiaren ordutegia zabaldu egingo da,** eta eguerdian ez da itxiko.
- **Gidatutako entrenamendu-saioak eskainiko dira** (programaren berri aurrerago emango du Udalak), eta adinekoei zuzendutako egitaraua zabalduko da.
- **KOZ Kirol Orientazio Zerbitzu berri eta eguneratua jarriko da martxan,** osasun zentroekin elkarlanean, ohitura osasuntsu eta aktiboak sustatzea helburu duen zerbitzu pertsonalizatua.
- **Orietik kanpoko herritarrek ere** aukera izango dute Orio Kirola zerbitzuan izena emateko.

Kirol-elkarteak eta eragileak

- Udalaren laguntza jasoko dute beren instalazioen mantentze, garbiketa eta aseguratuko.
- Klubek kiroldegiko gimnasioak erabili ahal izango dituzte, ordu jakinetan. Hala, indarra ere landu ahal izango dute, teknikaz gain.
- Kirol-elkarte batean izena emateko, Karela kiroldegiko leihatilara jotzeko aukera izango dute herritarrek, informazio bila. Ondoren, inskripzioa klubean egin beharko dute.



ORIO KIROLA

A partir de ahora, las instalaciones deportivas del municipio se gestionarán de forma **unificada**, con la ventanilla del polideportivo Karela como punto de referencia para los servicios deportivos de Orio.

El objetivo de este cambio es garantizar que la oferta deportiva esté al alcance de toda la ciudadanía y gestionar los recursos deportivos municipales de forma más eficiente.

01 ¿Cómo se verá reflejado este cambio?

MEJORAS EN LAS INSTALACIONES

Los clubes deportivos del municipio recibirán apoyo del Ayuntamiento para el mantenimiento, limpieza y seguros de sus instalaciones, y podrán utilizar las instalaciones municipales para sus entrenamientos.

VENTANILLA ÚNICA

Las ofertas de las asociaciones deportivas locales tendrán una mayor difusión y la ciudadanía accederá a ellas de manera más sencilla a través de una única ventanilla en el polideportivo.

DEPORTE ESCOLAR

El Ayuntamiento busca fomentar el deporte en la infancia. A través del programa Eskola Kirola, ofrecerá opciones adaptadas para jóvenes, promoviendo la cohesión social y la participación de los clubes locales.

DEPORTES ACUÁTICOS

El Ayuntamiento quiere ampliar el uso de Arraunetxe, centro de alto rendimiento en remo y deportes acuáticos, para que sea también un referente en ocio y formación.

DEPORTE INCLUSIVO

Se reforzarán las actividades dirigidas a personas mayores, mujeres y personas con discapacidades, y se les facilitará el acceso a las instalaciones.

02 Proceso

1. DIAGNÓSTICO

El Ayuntamiento analizó en primer lugar la **situación real del municipio** en términos de demografía, economía, recursos materiales y humanos. El estudio de las infraestructuras deportivas locales fue realizado por la oficina de ingeniería Txekalde, y el diagnóstico de la oferta deportiva, por la empresa Kirol Management SL.

2. ACUERDOS Y REGLAMENTACIÓN

Basándose en estos informes, el Ayuntamiento firmó **acuerdos de colaboración** con los principales clubes deportivos del municipio y **elaboró un reglamento para el uso de las instalaciones deportivas municipales**. Este reglamento se aprobó en 2024 y entrará en vigor en 2025.

3. PROCEDIMIENTO

Desde noviembre de 2024, el Ayuntamiento ha **puesto en marcha una licitación para unificar y mejorar los servicios de sus instalaciones deportivas, y otra para renovar el equipamiento de los gimnasios**. Ambos procesos se adjudicarán entre abril y mayo.

4. PUESTA EN MARCHA

EN MAYO se firmará el nuevo contrato del polideportivo y entrarán en vigor los siguientes cambios:

- Se modificará el horario del polideportivo, ampliándolo al mediodía.
- Se reforzará la oferta de actividades para personas mayores.
- Se pondrá en marcha el Servicio de Orientación Deportiva (KOZ) para fomentar un estilo de vida activo en la ciudadanía.

DURANTE EL VERANO, se instalarán nuevos equipos en los gimnasios y se habilitarán los servicios de asesoramiento y seguimiento para los usuarios.

EN SEPTIEMBRE, tras finalizar las obras y adaptaciones, se pondrá en marcha el nuevo servicio Orio Kirola.

03 Sigüientes pasos

Punto de información

En la ventanilla única del polideportivo Karela se ofrecerá:

- Información sobre los diferentes tipos de abonos.
- Detalles sobre las instalaciones deportivas del municipio, su oferta y horarios.
- Programación de actividades del polideportivo.
- Información sobre las ofertas de los clubes y asistencia en los procedimientos de inscripción.
- Un servicio de orientación personalizado según las preferencias e intereses de cada persona.
- Kirol Txartela Mugiment: información sobre las instalaciones disponibles en otros municipios.

Polideportivo

- **El polideportivo contará con dos gimnasios:** el actual, que será renovado, y un nuevo espacio que se habilitará en el local del antiguo bar Haize Berri.
- **Se renovará completamente la maquinaria de ambos gimnasios.** Habrá monitores disponibles en determinados horarios para ofrecer apoyo, asesoramiento y planificación.
- **Se ampliará el horario del polideportivo**, manteniéndolo abierto al mediodía.
- **Se ofrecerán sesiones de entrenamiento guiadas** (el Ayuntamiento dará más detalles próximamente) y se ampliará la oferta de actividades para personas mayores.
- **Se implementará un renovado Servicio de Orientación Deportiva (KOZ)**, un servicio personalizado orientado a la promoción de hábitos saludables y activos en colaboración con los centros sanitarios.
- **Los ciudadanos de fuera de Orio también** podrán inscribirse en el servicio Orio Kirola.

Clubes y agentes deportivos

- Los clubes deportivos recibirán apoyo municipal para el mantenimiento, limpieza y seguros de sus instalaciones.
- Además, podrán utilizar los gimnasios del polideportivo en los horarios establecidos, para complementar los entrenamientos de fuerza física.
- En la ventanilla del polideportivo se podrá solicitar información sobre las inscripciones, pero se deberán formalizar en los clubes.

El Ayuntamiento de Orio pondrá en marcha este año un **nuevo servicio deportivo**

